

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Behin betiko onestea UE-19B eremuaren hirigintzako jarduketa programa eta egikaritze hitzarmena eta jendurrean jartzea birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuak

Hasierako onespina eman zitzaion, 2020ko abenduaren 28an, Lapuebla de Labarcako Arau Subsidiarioen EB-19Bko eremuaren hirigintzako jarduketa programari eta egikaritze hitzarmenari, Lapuebla de Labarcako Udalak eta Bodegas Larchago SA enpresak hitzarmen-sistemaren bidez egikaritzeko.

Hitzarmena osorik argitaratu zen, eta bi espedienteak 20 egun baliodun jarri ziren jendurrean (ALHAO, 148. zk., 2020ko abenduaren 30a), eta ez da haien aurkako alegaziorik aurkeztu.

Alkatearen 2021eko abuztuaren 11ko ebazpen bidez onetsi ziren behin betiko; eta indarrean dauden lege-xedapenak betez, argitaratzen dira honen bidez.

Hirigintzako jarduketa programaren edukiaren laburpena:

– Eremua: Lapuebla de Labarcako 2 poligonoko 36 eta 1150 lurzatiek osatzen duten UE-19B egikaritze unitatea.

– Azalera: 2.847,19 m².

– Egikaritze araubidea: pribatua, eta jarduketa sistema: hitzarmena, jabe bakarra.

– Urbanizazio lanen aurrekontua: 61.259,97 euro.

– Birpartzelazio proiektua aurkezteko epea: aurkeztuta.

– Urbanizatzeko lanak gauzatzeko epea: gehienez 2 hilabete.

– Eraikitze lanak egiteko epea: gehienez 2 urte.

Hitzarmenaren edukia ez da aldatu 2021eko abenduaren 30eko ALHAOn (148. zk.) argitaratutako edukiarekin alderatuta.

Onespen dekretuaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, eman duen organoari. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien dagokion epaitegian; horretarako, bi hilabeteko epea izango da.

Era berean, birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuen hasierako onespina ALHAOn (148 zk., 2020ko abenduaren 30ekoa) argitaratu ondoren, alegaziorik aurkeztu ez denez eta ohartuta, behin betiko onetsi aurretik, probintzia hedapeneko egunkari batean publizitate izapidea ez dela egin, huts hori zuzentzen da. Horiek horrela, interesdunek 20 egun baliodun izango dituzte, hots, 2021eko azaroaren 25era arte, egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Lapuebla de Labarca, 2021eko urriaren 26a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ